

MERKATU SEGMENTAZIOA

Gure inguruan ikusitakoaren arabera, garbi geratu zaigu betaurrekoak daramatzatenek egunerokotasunean arazoak izan ohi dituztela, euria edo lurrina dela eta. Beraz, Gure produktua betaurrekoak daramaten guztiei zuzendua izango da, edozein adinetako pertsonen erosotasuna bilatzea eta horien arazoei irtenbide bat bilatzea baitugu helburu. Gaur egun, betaurrekoak 2 urtetik gorako pertsonek erabiltzen dituztelarik, gure produktua ere horientzat izango da. Maila sozioekonomiko ertaina dutenentzat bideragarri izango dira.



Gure produktuari dagokionez, diseinu edota tamaina aukera zabala egongo da, bezeroei ahalik eta gehien egokituta egongo dira, merkatua zabaltzeko helburuarekin. Umeek kolore biziak daramaten betaurrekoak erabili ohi dituztela ohartu gara, beraz horrelako betaurrekoak ere eskainiko ditu gure enpresak. Bestetik, helduei zuzendutako betaurrekoak ere egingo ditugu, horiek kolore neutroagoak izango dituzte, beste adin batera ere egokitzea nahi baitugu.

